

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### **Ibilgailuak eraikin partikularretan sartzeko pasabideen tasaren errolda —2020ko lehen seihi- lekoa— jendaurrean jartzea**

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita ibilgailuak eraikin partikularretan sartzeko pasabideen tasaren errolda —2020ko lehen seihi-lekoa—, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea—, aztertu eta egokitzen jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 25etik maiatzaren 25era artekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 14an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**IÑAKI GURTUBAI ARTETXE**